

Aldez aurreko kontsulta honen xedea da herritarren iritzia eta ordezkariak handiena duten erakundeena jasotzea, hain zuzen ere Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea ordeztuko duen foru legearen aurreproiektua prestatzearen eraginpean gerta litezkeenak, honako arlo hauen inguruan:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak:

Indarra duen legezko araudira ez ekartzea honako hauetatik datozen berritasunak: nazioarteko eta Europako ebazpenak eta hitzarmenak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 2005az geroztiko aldaketak, eta egungo lehentasun estrategikoak, zeinak loturik baitaude pertsonengan oinarritutako arretari, haien parte-hartzeari, prebentzioari eta Familiari, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko indarreko planaren gainerako ildo estrategikoei.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Eguneratzea beharrezkoa da, erreformak adingabeen interesa sustatuko duelako eta hori funtsezkoa delako; eta egokia ere bai, une honetan eskura baititugu hainbat tresna: haurren eta nerabeen egoerari buruzko diagnostiko berri bat; plangintza estrategiko bat, indarrean dagoena, jada abiarazi dena eta zati batean ebaluatu dena; parte-hartzerako kultura eta tresna garatuagoak, eta estatuko eta nazioarteko ebazpen eta arau batzuk, indarreko foru legera oraindik ekarri ez direnak.

c) Arauaren helburuak.

Haurren eta nerabeen eskubideen aitortza eguneratzea eta haien sustapena indartzea, prozesuan parte hartzeko aukera gehiago emanez; halaber, babes eta erreforma sistema eta administrazio antolaketa hobetzea, datuetan oinarrituta prebentzioa eta sareko lana handitzeko; eta jarduketak printzipioen definizioa eta esparru juridikoa egokitzea estatuko, nazioarteko eta Europako geroko araudietara.

d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Arauemaileak: Helburu nagusiak direnez haurren eta nerabeen eskubideak aldarrikatzea eta horiei eragitea, kontuan hartuta eskubideei buruzko esku-hartzeen berezko lege maila eta 2005eko Foru Legean jasotako indarreko foru esparrua eguneratzeko aukera, hobe da araua ordezte, ezertan eragotzi gabe ondoren erregelamenduzko egokitzapenak egitea.

Arauemaile ez direnak: indarreko araudia garatzeko jarduketak Nafarroako administrazio publikoek egin ditzakete neurri batean, indarrean dagoen plangintzaren ildo estrategikoak aplikatuz. Hala ere, ez lirateke nahikoak izan arau baten hartzaile izan daitezkeen guztiak juridikoki lotzeko arau batek dituen eraginaren arabera, ezta arau eta tresna berriak sartzeko ere, adingabeei bermatu beharko lieketenak beren eskubideekin eta alderdi guztietako garapen egokiarekin bat datorren arreta osoa emanen zaiela eta, era berean, bat datozenak estatuan zein nazioartean indarrean dagoen araudiarekin eta haurrei eta nerabeei buruzko egungo strategiarekin.